

BEZEROEKIKO HARREMANAK

- **Nola erakarriko dituzue bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko dituzue bezero horiek?**

-Gure idea bezeroak erakartzeko, zerbait berria eta merkea sortzea izan zen lehenengo momentutik. Hau lortu ahal izateko hainbat pauso jarraitu ditugu. Lehenik eta behin, aurretik esan dugun bezela zerbait berria sortzea erabaki dugu. Beraien beharren arabera panel mota desberdinak sortzea erabaki genuen. Gure produktua baserriko jendearentzat denez, beraien azalean jarri ginan eta konturatu ginan askotan beraien etxe bizitzetan energia urria dutela eta gainera oso garestia. Gainera, gaur egungo baserrietako funtzionamendua guztiz aldatu da, geroz eta elektrizitate gehiago erabiltzen hasi dira. Horretarako, gure lokal txikian, ikuskizun publikoak egitea erabaki dugu, jendeak gure proiektu hau, ikusi eta frogatu ahal izateko. Iruditzen zaigu, ate ireki hauekin, jendearekiko harreman estuagoa izango dugula, eta horrela beraien konfiantza proiektuan jartzea lortuko dugula. Eta horrela geroz eta bezero gehiago erakartzea da gure helburua.

-Bezero hauek mantentzeko, beste enpresa gehienetan bezala, gure atenzio guztia ematen saiatuko gara. Esaterako, arazorik edukiko balute, segituan joango ginateke beraien baserrietara, behar dutenarekin laguntzera. Hau, guztiz dohainik izango litzateke, iruditzen zaigulako panelen kostua nahiko altua dela. Horretaz gain, geroz eta denbora gehiago gurekin, geroz eta beherapen gehiago izango dituzte. Honekin esan nahi duguna da, beraiek gurekiko duten konfiantza kontuan hartuko dela guri erosten hasten direnetik.

